



# 2023ko Memoria

---



Gorlizko Ospitalea

---



OSASUN SAILA  
DEPARTAMENTO DE SALUD



# Edukien aurkibidea

1. Sarrera
2. Erakundearen testuingurua
3. Gure ikuspegia, estrategia eta plangintza
  - Plan estrategikoa
  - Xedea, ikuspegia eta balioak
  - Ardatz eta helburu estrategikoak: 2023-2028
  - Urteko Kudeaketa-plana
  - Estrategia berikustea
  - Hedapena
4. Gure eragina pazienteengan
  - Zentroak eta ospitaleko zerbitzuak
  - Programak eta proiektuak
  - Mugarriak
  - Gogobetetze-inkesta
5. Gure eragina profesionalengan
  - Nor gara
  - Prestakuntza eta irakaskuntza
  - Lan-osasuna
  - Euskara
  - Infomatika
6. Gure eragina ingurunean
  - Gizartea
  - Ziurtagiriak
  - Aliantzak eta interes-taldeak
  - Programak eta proiektuak
  - Hobekuntzak ekipamenduetan, instalazioetan eta prozesuetan
7. Gure eragina berikuntza arloan
  - Berikuntza-plana eta I+G+b batzordea
  - Programak eta proiektuak
8. Emaitzak
  - Emaizta estrategikoak
  - Emaitzak bezeroen arloan
  - Emaitzak gizartearen eta ingurumenaren arloan
9. Kontaktua

(Klik bikoitza aukeren gainean edukira zuzenean sartzeko)  
(Klik bikoitza beheko eskuineko triangeluan, aurkibidera itzultzeko)

# 1. Sarrera

---

Gorlizko Ospitalearen 2023ko memoria aurkezten dugu. Bertan, urtean zehar izandako lorpenak, aurrerapenak eta erronkak jasotzen dira. Dokumentuaren egitura Euskaliten Kudeaketa Aurreratuko Ereduaren ildotik bideratu dugu, eta hala, informazioa hauen inguruan antolatu dugu: estrategia-elementuak; pazienteengan, profesionalengan eta ingurunean duen eragina; berrikuntza eta emaitzak.

Emandako zerbitzuak, pazienteei emandako arreta, zainketen eta osasun-asistentziaren kalitatean izandako aurrerapenak eta lortutako mugariak, proiektuak eta balio-emaitzak bakarrik dira posible artatzen ditugun pertsonen osasuna eta Gorlizko Ospitalean duten bizipena hobetzen egunero ahalegintzen diren profesionaleri esker.

Pazienteek eta senitartekoek eskolen, inkesten eta haien beharrak eta esperientziak jaso eta lantzeko foroen bidez modu aktiboan parte hartzeak ikuspegi paregabea eta baliotsua ematen digu fokua arretaren humanizazioan jartzeko eta erakundearen eta zerbitzua jasotzen duen komunitatearen arteko konfiantza-harremana sendotzeko.

Izpta.: Carmen Rodríguez  
Zuzendari-gerentea

## 2. Erakundearen testuingurua

Gorlizko Ospitalea erakunde sanitarioa, Osakidetzaren Sareko zerbitzu sanitarioetako erakundea da; Osakidetza Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko zuzenbide pribatuko Ente Publikoa da.

Patologia azpiakutuak artatzeko zentro bat gara, eta traumatologiako prozesuen errehabilitazioko, prozesu sistemiko orokorretako eta garuneko kaltearen errehabilitazioko unitateak ditugu. Halaber, barne-medikuntzako unitateak ditugu egonkorte- eta suspertze-prozesuetarako eta arreta aringarrirako.



Ospitalea GORLIZ udalerrian dago, Bizkaian. Beste zentro batzuekin harremanak ditugu, prozesu batzuetan Bizkaiko eremu geografikoko pazienteak artatzeko, eta beste batzuetan URIBE KOSTA eskualdekoak artatzeko, bai ospitalizazioko arloan, bai ambulatorioan, bai kanpo-kontsultetan.

### Ospitalizazioa

Ospitalizazio erregimenean prozesu moderatu laria dituzten pertsonak artatzen dira, baldin eta, aldi akutua gainditu ondoren, pertsona horiek kontrola-eboluzioa eta/edo errehabilitazioa behar badituzte, baita arreta aringarria ere.

Hauek dira arreta hori emateko zerbitzuak:

- Barne-medikuntza: Egonkorte- eta Susperraldi Unitatea eta Zainketa Aringarrien Unitatea daude.
- Errehabilitazioa: Prozesu hauetan suspertzea behar duten pazienteak artatzen ditugu:
  - Hartutako Garuneko Kaltea.
  - Prozesu traumatologikoak.
  - Anputazioak
  - Prozesu neurologiko periferiko larriak.
  - Desegokitzapen-prozesu konplexuak.

Prozesu asistentzial horiei laguntzeko zeharkako beste prozesu batzuk daude: Pazientearen Segurtasun Klinikoa, Famazia, Harrera eta Pazienteen kudeaketa, Pazientearen eta Erabiltzailearen Arreta, Altan laguntzea.

### Tratamendu ambulatorioa

Gorlizko Ospitalean ospitaleratuta egon ondoren, fase ambulatorioan dauden pazienteak artatzen ditugu, baita beste ospitale-zerbitzu batzuetatik edo beste ESI batzuetako lehen mailako arretatik bideratutako pazienteak ere.

### Kanpo-kontsultak

Kanpo-kontsulten arloan, errehabilitazioko kontsulta medikoan hauek artatzen ditugu: garuneko kaltearen errehabilitazioa, anputatuak, espastikotasuna eta haurren errehabilitazioa.

### 3. Gure ikuspegia, estrategia eta plangintza \_\_\_\_\_

#### Plan estrategikoa

Gure Plan Estrategikoa berri du, 2023tik 2028ra bitarteko indarraldia proposatuz.

2023-2028 PE hau gizarteari erantzuten lagundu behar digun tresna da, gure ospitaleak herritarren beharrei erantzuteko duen konpromisoarekin.

Plan hau pazientearen erdigunean jarri bideratuko dugu, erantzukizun sozialarekin eta ekintza zuzenak eskatutako kalitate-estandarrekin ziurtatuz, berrikuntza, sormena, teknologien eta IKTen erabilera txertatuz, eta zerbitzuak ematen dituzten beste esparru batzuekin erlazionatuz, hala nola esparru sozialarekin.

2023-2028 aldian Gorlizko Ospitalearen estrategia berrikusteko erabilitako metodologia oinarritu da, batetik, etengabeko hobekuntzaren printzipioen hedapenean eta, bestetik, kanal eta diskurtso ireki baten bidez elkarrekin eraikitzeko borondatean. Horretarako, gure erakundeko hainbat arlotako profesionalen lankidetzak izan dugu, gizartearen, beste erakunde batzuen eta pazienteen ordezkariekin batera.



## Xedea, ikuspegia eta balioak

### XEDEA



Euskal osasun-sare publikoko azpiakutuen ospitalea gara, eta arreta pertsonalizatua, integrala, berritzailea eta jasangarria eskaintzen dugu. Asistentziaren jarraitutasuna emateko lan egiten dugu, bikaintasunera bideratuta.

*\* Azpiakutuen ospitalea: zentroak artatzen dituen pertsonak ez dute behar konplexutasun handiko neurri diagnostikorik ez terapeutikorik. Batez ere patologia ez-akutua duten pazienteak artatzen ditu, egonkortze-aldian, susperraldian, zainketa aringarrietan eta errehabilitazioko tratamenduan.*


### IKUSPEGIA



Pertsona ardatz duen ospitalea izan nahi dugu, emaitzetara bideratua eta profesionaltasunagatik, dinamismoagatik eta lan koordinatuagatik aitortua.

Ikerketa-, irakaskuntza- eta berrikuntza-zentro bat, pazienteen, familien eta erakundeen parte-hartzea sustatzen duena eta profesionalen inplikazioa bultzatzen duena, osasun-sistemaren jasangarritasunari lagunduz.

### BALIOAK



1. Pertsona ardatz duen arreta
2. Profesionaltasuna
3. Dinamismoa
4. Emaitzetara bideratua
5. Sarean lan egitea

#### 1. PERTSONA ARDATZ DUEN ARRETA

Pazienteari, familiari eta zainzaileari zuzendutako arreta, aniztasuna aitortzen duena eta individualtasunarekiko, duintasunarekiko, sinesmenekiko eta balioekiko errespetuarekin jarduten duena. Baterako sorkuntzaren bidez, partekatutako erabakiak errazten dituen eta osasun-prozesuan autonomia sustatzen duen arreta.

#### 2. PROFESIONALITASUNA

Motibazioa eta lankidetzat eskatzen duen konpromisoa eta inplikazioa da. Horren bidez, alderdi etikoak, autokritikarako gaitasuna eta ebidentzia zientifikoarekiko konpromisoa txertatzen ditugu. Arreta bikaina eskaintzeko behar den gaitasunaren ezinbesteko elementutzat hartzen dugu, hain zuzen, aldaketaren eragile gisa berrikuntza txertatuko duen arreta.

### **3. DINAMISMOA**

Aldaketekiko jarrera positiboa, erantzunetan gogoetatsuak eta bizkorrak izateko gaitasuna eta oraingo eta etorkizuneko testuetara egokitzeko proaktibo izatea ahalbidetzen digun espiritu ekintzailea dela aitortzen dugu.

### **4. EMAITZETARA BIDERATUA**

Osasunaren, ingurumenaren eta ekonomiaren arloko emaitzak lortzeko jarrera gisa ulertzen dugu, eta segurtasun-, eraginkortasun-, efikazia- eta efizientzia-irizpideak barneratzen ditu, sistemaren jasangarritasunaren bila.


### **5. SAREAN LAN EGITEA**

Lankidetzan, era koordinatuan eta integrazio-irizpideekin egindako lana da. Desberdintasunen aintzatespenean eta ulermenean eta gure jardueren eskuzabaltasunean oinarritutako lana. Emaitzak aberasteko, prozesuan ikasteko eta pertsonen eta erakundeen etengabeko inplikazioa sustatzeko aukera.




## Ardatz eta helburu estrategikoak 2023-2028

Aurreko azterketei erreparatuta eta, bereziki, horietan identifikatutako erronkei begira, 5 Erronka Estrategikoak idatzi dira, Horiek, Osakidetzaeren eta Osasun Sailaren estrategiarekiko koherentzia eta bat ehortzea bilatzen dute une oro, diagrama honetan ikus daitekeenez:



Erakundeak Ardatz Estrategikoen hedapena eta jarraipena, Garapen Arloetan, modu eraginkorrear e egiteko erabiltzen duen egitura, irudi honetan ikus daiteke:



## Urteko Kudeaketa-plana

Plan Estrategikoa (PE) gauzatzeko eta kudeatzeko, urtero Urteko Kudeaketa-plana (UKP) egiten da hainbat iturritako ekarpenekin. Kudeaketa-planean urtean zehar egingo diren bideak, proiektuak eta ekintzak planifikatzen dira. UKP hori ebaluatu egiten da eta hurrengo urteko UKPari lotu, erakundearen Plan Estrategikoari erantzuna emateko.



## Estrategiaren berrikuspena

UKParen (Urteko Kudeaketa-plana) ebaluazioren testuinguruan, Zuzendaritza Taldeak estrategia gainbegiratu du, emaitzetan, helburuetan eta hurrengo urterako planetan oinarrituta, eta zerbait berri gehitu behar bada, jasota geratzen da eta hurrengo urteko UKPa (Urteko Kudeaketa-plana) egiten da.



## Hedapena

Estrategia Prozesuen Maparen bidez hedatzen eta lantzen dugu. Hor, prozesu guztiak biltzen dira, hiru kategoriatan banatuta: estrategikoak, operatiboak eta laguntzakoak.

Aldi berean, agente-lerrotik ere hedatzen dira CODIAM delakoaren bidez (Zuzendaritza Kontseilu Handitua).

Prozesuen bidezko kudeaketak sistematika bat, estrategia zabaltzen laguntzen duen ordena bat, jarraitzea ahalbidetzen du, eta beraz, helburuak, ekintzak eta emaitzen kontrola egitea, analisis, ebaluazioen eta hobetzeko arloen zikloari jarraitzeko.



## 4. Gure eragina pazienteengan

### Zentroak eta ospitaleko zerbitzuak

GORLIZKO OSPITALEA	
OSPITALIZAZIOA	
BARNE-MEDIKUNTZA: EGONKORTZEA ZAINKETA ARINGARRIAK GERIATRIA	
54 ohe	
ERREHABILITAZIOA	
90 ohe	
ERREHABILITAZIOKO KANPO-KONTSULTAK	ETUko ARLO TERAPEUTIKOA
Neuropsikiatriako k. Garuneko kaltearen erhb. neurologikoko k. Erhb. Traumatologikoko k. Erhb. Orokorreko k. Erhb. Baskularreko K. (anputatuak) Eskola Osasuneko k. Interbentzionismo aurreratuko k. Haurren errehabilitazioaren k. Kirurgia ondoko paziente traumatologikoei (belauna/sorbalda) arreta goiztiarra emateko kontsulta Espastizitateko kontsulta Disfagiako kontsulta	Zinesiterapia Elektroterapia Zitxada lehorra Mekanoterapia Termoterapia Talasoterapia (itsasoko ura duen igerileku klimatizatua) Terapia okupazionala Logopedia (lengoaia eta disfagia) Neuropsikologia Aisia-estimulua gela Belauneko protesietako eguneko ospitalea Ibilera ebaluatzea eta berriro entrenatzea Kirurgia ondokoak tratatzeko zirkuitua (sorbalda) Haurren errehabilitazioa Arnas errehabilitazioa Talka-uhinak Terapia dual motorea eta kognitiboa Errealitate birtualaren bidezko terapia Telerrehabilitazioa Begi-irakurgailuak
Kontsulta ez-presentzialak Lehen Mailako Arretarako eta Arreta Espezializaturako.	
LAGUNTZA ZERBITZUAK	
ERRADIOLOGIA	
Ospitaleko erradiologiako zerbitzutik estaldura ematen diegu bai ospitaleari berari eta bai mugetan dauden herrietako anbulatorio eta osasun-zentroei ere.	
ADMINISTRAZIOKO ARLOA	
FARMAZIA	
ELIKADURA / SUKALDEA	
PEAZ - KSU	
INFORMAZIOA / HARRERA	
INFORMATIKA	
MANTENTZE-LANAK	
GARBIKETA	



## Programak eta proiektuak

### ERREHABILITAZIO NEUROLOGIKOKO ARLOA.

- Programa: Aisia-estimulua gela.
- Programa: Garuneko kaltearen eskola ospitaleratze erregimenean.
- Programa: Garuneko kaltea duen pazientearen maneian senideei/zaintzaileei banakako prestakuntza ematea ohe ondoan, ospitaleko altari begira.
- Programa: Diziplina anitzeko heltze goiztiar kognitibo-konduktuala hartutako garuneko kaltea duen pazientearengan, Neuropsikologia eta Terapia Okupazionalaren aldetik.
- Programa: Disfagiaren balorazioa eta tratamendua elektroestimulazioko teknika eta lrensketaren ebaluazio fibroskopikoa (FEES) erabiliz.
- Programa: Errehabilitazio Neurologikoan arreta partekatua ematea neurologiako mediku espezialistarekin eta barne-medikuntzakoarekin batera.

### ERREHABILITAZIO TRAUMATOLOGIKOKO ARLOA.

- Programa: Errehabilitazioko arreta goiztiarra belauneko eta sorbaldako kirurgietan.
- Programa: Eguneko ospitalea belauneko artroplastiako ebakuntza izan duten pazienteentzat.
- Programa: Aldakako haustura duten pazienteei modu integralean heltzea.
- Programa: Aldakako hausturaren eskola.

### ERREHABILITAZIO OROKORREKO/BASKULARREKO ARLOA.

- Programa: Anputatuen eskola. Paziente aktiboa sartzea.
- Programa: Covid osteko pazienteari fase azpiakutuan heltze integrala eta diziplina anitzekoa egitea.
- Programa: Polineuropatia periferiko konplexua duten pazienteentzako errehabilitazio integrala.
- Programa: Arnas errehabilitazioa
- Programa: zainketa intentsiboen osteko errekupeazioa.

### BARNE-MEDIKUNTZAKO ARLOA: EGONKORTZEA. ZAINKETA ARINGARRIAK.

- Programa: Paziente pluripatologikoari arreta ematea. Ibilbideak egoitzekin batera. ESlarekin integratzea.
- Programa: Behar aringarriak dituen paziente/familiarentzako ekintza-plan integral bio-psiko-soziala.
- Programa: Bizitzaren amaieran senideen parte-hartzearekin arreta emateko prozedura.
- Programa: Terapia fisikoa aringarrietako paziente onkologikoarentzat.
- Programa: Doluminak emateko karta.

### GERIATRIAKO ARLOA.

- Hauskortasun-unitatea: paziente hauskorrei arreta integrala ematea.
- Ortogeriatría.
- Estimulazio fisikoko programa.

**ZEHARKAKOAK: ARLO GUZTIETAN ERAGITEN DUTE**

- Programa: Ohean dagoen pazientearen zaintzaileentzako prestakuntza.
- Programa: Senideei laguntzeko taldeak.
- Programa: Senideak / zaintzaileak ahalduntzeko estrategia.
- Programa: Ospitaleko alta: altan laguntzeko programa.
- Programa: Arisku sozialaren balorazioa ospitaleratzean.
- Programa: Kontsulta ez-presentzialak arlo guztietan.
- Programa: Pazientearen segurtasuna.
  - Ospitaleratuta dagoen pazientearen egoera nutrizionalari heltzea.
  - Infekzio nosokomialen prebentzioa, zaintza eta kontrola PVPCIN
  - Segurtasun-kulturaren kudeaketa eta sustapena.
  - Segurtasun-arriskuen kudeaketa.
  - Mendekotasunarekin lotutako larruazaleko lesioei (MLLL) heltzea, horien prebentzioa eta tratamendua.
  - Erorikoen prebentzioa.
  - Pazientea zalantzarik gabe identifikatzea.
  - Medikamentuen erabilera segurua.
  - Antibiotikoen erabilera optimizatzeko programa (PROA)
  - Medikazioa bateragarria izatea.
  - Transfusio-segurtasuna.
- Prozesuen araberrako kudeaketa-egitura bi prozesutan sinplifikatuta aplikatzea: barne-medikuntzan eta errehabilitazioan.
- Minaren heltze holistikoa.
- Jarduera asistentziala egokitzeko programa.
- Arlo asistentzial desberdinetan ikerketa-proiektuak sartzea.
- Ekografia klinikoko proiektua, profil profesional guztien eta arreta-eremu guztien parte-hartzearekin.
  - Erizaintzako eta medikuntzako barne-prestakuntza.
  - Gernu-ekografia ezartzea, trebatzaileei prestakuntza emanez
- Sarbide baskularreko eta zain barneko terapia-taldea.
- Zauri konplexuen erreferentea.
- BPSO proiektua inplementatzea eta garatzea gida kliniko hauekin:
  - Sarbide baskularra.
  - Pertsona eta familia ardatz dituzten zainketak.
  - Zainketen ikuspegi aringarria bizitzaren azken 12 hilabeteetan.
- Programa: ospitaleratuta dauden pazienteen kasuan, disfagiaren heltze integrala eta diziplina anitzekoa egitea, barne harturik irenketaren ebaluazio fibroskopioak (FEES) egitea eta elikagaiak, dietak eta errezetak gomendatzea (liburua).
- Programa: arreta partekatua, ospitaleko errehabilitazio-unitateetako diziplina anitzeko taldeetan barne-medikuntzako mediku espezialista sartuz.
- Programa: pazienteentzako/familientzako errehabilitazio-terapien Eguneroko Agenda Individualizatua.
- Laguntza espirituala.

Halaber, asistentziaren eta pazientearen segurtasunaren arloan ospitaleari eragiten dioten proiektu korporatiboetan parte hartzen dugu.

**LANKIDETZA-PROIEKTUAK**

- Uribe ESiko Urologiarekin lankidetzaproiektua, zainketa aringarriak behar dituzten pazienteen kasurako.
- Uribe ESiko zainketa aringarrien batzordean parte hartzea.
- Uribe ESiko batzorde soziosanitarioan parte hartzea.




## Mugarriak

- Geriatriako Arloa sendotzea, Geriatriako espezialistak buru direla.
- Gorlizko Ospitaleko Berikuntza eta Ikerketa sendotzea, proiektu kopuru handiarekin.
- Jarduera asistentziala eta terapeutikoa hobetzen duen teknologia berria sartzea eta/edo dagoena berritzea: irrati-frekuentzia, talka uhina ospitalean, oreka-plataforma, gazeurrean zeharreko estimulazioa, ergoespirometroa, telemetria-monitoreak, monitore desfibriladoreak, terapia duala (motor-kognitiboa), etab.
- Haurren Errehabilitazioa sendotzea eta itzarongelen eta eremu terapeutikoaren ikuspegi humanizatua.
- Prozesu guztietan psikologiaren esku-hartzea sendotzea, pazienteei, senideei, zaintzaileei eta profesionaleri zuzenduta.
- Lidergo-eredu berrian aurrera egitea ikuskatzaile klinikoaren figura sendotuz, zainketetara eta banakako asistentzia-praktikara bideratuta.
- Nursing Reserch Challenge proiektu korporatiboan parte hartzea.
- Interbentzionismo aurreratuko unitatea sortzea.




## Gogobetetze-inkestak

Kexa, erreklamazio eta iradokizun guztiak Pazientearen eta Erabiltzailearen Arreta Zerbitzuaren bidez (PEAZ) kudeatzen eta erantzuten dira. Horrez gain, ospitalizazio eremuetan paziente eta senideentzako iradokizun-postontziak daude.



PEAZeko ADIERAZLEEN MONITORIZAZIOA					
	2019	2020	2021	2022	2023
ARRISKU SOZIALAREN ESTALDURAREN INDIZEA	83	50	83	80	87
ESKU-HARTZEEN INDIZEA	77	78	100	118	154
KEXEN KOPURUA	20	13	19	31	18
ERREKLAMAZIEN KOPURUA	235	165	251	423	17
ESKER ONEN KOPURUA	27	15	18	13	11
KONPONDUTAKOEN EHUNEKOA <30 EGUN	99	100	100	100	100
OSPITALEKO ALTAK	1.882	2.067	1.932	1.742	1.535
KEXA-TASA 100 ALTAKO	1,1	0,6	1,0	1,8	1,2
URTEKO HELBURUA [<AURREKO BI URTEETAKO BATEZBESTEKOA]	1,3	1,0	0,8	0,9	1,4

KEXA-TASA 100 ALTAKO



Horrekin batera, pazienteen gogobetetzea inkestan bidez ere ebaluatzen dugu, espezifikoak hainbat jarduera-eremutarako.

<b>GURE PAZIENTEEN GOGOBEETZE OROKORRA JASOTAKO ASISTENTZIAREN INGURUAN</b>			
<b>HUMANIZAZIOA</b>	<b>Gizonak</b>	<b>Emakumeak</b>	<b>Guztira</b>
Langileek emandako tratuaaren kalitatea.	8,7	8,8	8,8
Gaueko atsedena errespetatzea.	8,1	8,1	8,2
<b>MINAREN MANEIOA</b>			
Egonaldian mina izan zuen (%).	26,7	36,8	32,7
Minaren tratamenduarekiko gogobetetasuna.	8,3	8,6	8,6
<b>AHALDUNTZEA</b>			
Zainketei buruz prestakuntza ematea pazienteari eta familiari.	8,2	8,5	8,4
Pazientearen jarduerari buruzko informazioa.	8,3	8,5	8,5
Zainketetan parte hartzeko aukera.	8,3	8,4	8,4
<b>BALORAZIO OROKORRA</b>			
Jasotako asistentziarekiko gogobetetze orokorra.	8,6	8,7	8,8

<b>GOGOBEETZE OROKORRA ARLOAREN ARABERA</b>				
<b>HUMANIZAZIOA</b>	<b>Errehabilitazioa</b>	<b>Kalte zerebrala</b>	<b>Egonkortzea</b>	<b>Aringarriak</b>
Langileek emandako tratuaaren kalitatea.	8,4	8,6	9,4	9,5
Gaueko atsedena errespetatzea.	7,7	7,6	8,8	9,3
<b>MINAREN MANEIOA</b>				
Egonaldian mina izan zuen (%).	39,1	25,5	31,8	33,1
Minaren tratamenduarekiko gogobetetasuna.	8,4	8,2	9,1	9,4
<b>AHALDUNTZEA</b>				
Zainketei buruz prestakuntza ematea pazienteari eta familiari.	8,0	8,0	9,1	9,2
Pazientearen jarduerari buruzko informazioa.	8,0	8,1	9,1	9,4
Zainketetan parte hartzeko aukera.	7,9	8,2	9,0	9,3
<b>BALORAZIO OROKORRA</b>				
Jasotako asistentziarekiko gogobetetze orokorra.	8,3	8,5	9,2	9,4

## 5. Gure eragina profesionalengan

Nor gara

Kategorien araberako datazioa	
A.1. Fakultatibo <del>med-tekn.</del>	27
A.2 Goi-mailako teknikariak	6
B.1 Diplomatu sanitarioak	103
B.2 Erdi-mailako teknikariak	3
C.1. Tek. <del>Esp.</del> sanitarioak	2
C.3. Tek. <del>Esp.</del> profesionalak	4
D.1. Osasun-laguntzaile tek.	99
D.2. Administrari laguntzaile tek.	18
D.3. Profesional laguntzaile tek.	5
E.1 Zeladoreak/Zerbitzuetako langileak	57
Z.L. Zuzendaritzako langileak	5
<b>GUZTIRA</b>	<b>329</b>

Ikuztegia, lorezaintza, segurtasuna eta sukaldearen kudeaketa azpikontratatuta daude.



## Prestakuntza eta irakaskuntza

### IRAKASKUNTZA

Irakaskuntza zentroa den aldetik, Gorlizko Ospitaleak praktikak egiten ari diren Gradu ikasleak hartzen ditu kategoría sanitario guztietan. Horrez gain, gure autonomia erkidegoko zein beste autonomia batzuetako graduondokoak eta prestakuntza jasotzen ari diren espezialistak (BAME, BAEE eta BAPE) ere hartzen ditu.

2023an fisioterapiako ikasleen gida eguneratu dugu, ETUren zerbitzuetatik pasatzeko errotazio-karteldegí bat sartu dugu eta kudeaketan errotazio-gida egin dugu.

EHUrekin 4. mailako ikasle batekin parte hartu dugu, kudeaketan 4 asteko errotazioa eginez, honako zerbitzu hauek bisitatuz: segurtasuna, kalitatea, prestakuntza eta irakaskuntza, PVPCIN, erdi-mailako arduradunak eta zuzendaritza. Ikasle hori bera "BPSO ebidentziaren aplikazioa lanpostuan" izeneko Gradu Bukarako Lana egiten hasi da. Horretarako, EHUrekin batera lan egingo duen tutore kliniko bat behar du, eta horren emaitzak 2024an iritsiko dira.

Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzan jarraitzen dugu Erizaintzako karrerarekin, eta 1. eta 2. mailako maila bakoitzeko 4 ikasle jasotzen ditugu.

2022-2023 ikasturtean 74 ikaslek egin dituzte praktikak gure zentroan, banaketa honen arabera

- o 13 erizaintzako laguntzaile
- o 40 erizain
- o 15 fisioterapeuta
- o 2 erradiologiako teknikari
- o 2 farmazialari. Horietako bat udan zehar boluntarioa izan da.
- o 1 master neuropsikologian
- o 23 egoiliar GK-an, Aringarrietan eta Ekografia klinikoan
- o Fisioterapiako 45 ikaslek 2 lanaldi egiten dituzte (lauhileko bakoitzeko bat) Eguneko Ospitalean

Ikasle guztiek praktikak Gorlizko Ospitalean egitea gomendatzen dute. Ikasleen % 78 oso pozik dago praktikerako dituzten itxaropenei dagokienez.

Gorlizko Ospitaleko 10 profesional, medikuntzakoak eta erizaintzakoak, beste ESI edo ospitale batzuetara joan dira prestakuntza jasotzera, eta kanpoko mediku bat Disfagiari nola heldu ikasteko prestakuntza hartzera etorri da.

### PRESTAKUNTZA

Gorlizko Ospitalean lan egiten duten pertsonak ospitaleak berak antolatutako prestakuntza-jardueren bidez eta Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiak edo beste zerbitzu-erakunde batzuek emandako prestakuntzaren bidez trebatzen dira. Ospitalean prestakuntza hartu duten beste erakunde batzuetako pertsonak barne hartuta, hau da 2023an prestakuntzan izandako parte-hartzearen emaitza:

023an jasotako prestakuntza	G	E	Parte-hartzaileak
<b>GUZTIRA</b>	341	2021	2362

Gorlizko Ospitaleak 32 prestakuntza-jarduera antolatu ditu (ikastaroak, tailerrak eta jardunaldiak). Horien artean daude Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseiluak egiaztatutako 7 jarduera eta sortu berri diren 2 online ikastaro: Tarteko Bizi-euskarria eta Gorlizko Ospitaleko erizaintzako oinarriko ezagutzak. Jarduera horrekin guztiarekin erakundeko 1178 profesional prestatu ditugu guztira. Etxe komertzialek dohanik egiten dituzten prestakuntza jarduereri ere zabalkundea ematen diegu.

Prestakuntza-jardueraren izenburua	G	E	Parte-hartzaileak
Larruazaleko urradurei heltzea	3	8	11
Nola heldu paziente trakeostomizatut/laringektomizatuari	1	27	28
Nola jokatu euspen mekanikoaren kasuan	12	65	77
Zaintzari balioa emanez	6	37	43
Laguntza teknikoak	2	35	37
BPSO pausoz pauso bikaintasunerantz	8	37	45
Pertsona barruko eta pertsonen arteko komunikazioa, pazienteekiko eta profesionalekiko harremanak h	0	15	15
Gorlizko Ospitaleko erizaintzako oinarriko ezagutzak	10	52	62
Ostomien zainketak	5	25	30
Sarbide baskularren oinarriko zainketak	5	53	58
Laneko arriskuen prebentzioari buruzko oinarriko ikastaroa	7	33	40
EBOLEERREHAB	6	24	30
Prestakuntza: beheko eta goiko gorputz-adarretako protesiak	5	29	34
BPSOren RNAO jardunbide egokien bultzatzaileak	3	8	11
Gizarte Segurantzako likidazio-fitxategietan dauden erroreen txostenak interpretatzea.	0	4	4
Zainketa aringarrien jardunaldia	7	59	66
Larruazaleko lesioak bizi-arrisku larriagatik	0	22	22
Sarbide periferikoko kateter baskularra maneatzea eta zaintzea	3	30	33
Zain-sarbide periferikoa maneatzea eta zaintzea	1	17	18
Mentoria komunikazioan	1	7	8
Planigune	8	13	21
Nominaren ordainagiria SAPen. Kasu praktikoak.	1	4	5
REHAMETRICS	0	2	2
Tarteko bizi-euskarria	11	75	86
Pazienteak mobilizatzeko teknikak	22	87	109
Anputazioak bendaz lotzeko teknikak	5	40	45
Presio negatiboko terapia	0	15	15
Higienerako materialaren erabilera egokia	4	27	31
Aposituen zentzuzko erabilera PUen prebentzioan eta zainketan	7	53	60
SEMPen erabilera eta maneiua.	9	23	32
Pazientearen balorazioa Osanaiaren bidez	8	53	61
PUen prebentzioari buruzko XII. Jardunaldia	1	38	39
<b>GUZTIRA</b>	<b>161</b>	<b>1017</b>	<b>1178</b>

## EZAGUTZAREN HEDAPENA

Penintsula osoko jardunaldi eta kongresuetara joan gara, eta hainbat kategoriatako 13 profesionalek 19 ekarpen egin dituzte. "Prestakuntza sarbide baskularren zainketa hobetzeko ardatz gisa" ahozko komunikazioak lehen saria lortu du SARBIDE BASKULARREN II. JARDUNALDIETAN (ASTURIAS).

Lankidetzaren mota	Laguntzaile kopurua
Ahozko komunikazioa	7
Hizlaria	5
Posterra	3
Entzulea	4
<b>GUZTIRA</b>	<b>19</b>

**BPSO**

Programaren helburu nagusia da profesionalen artean ebidentziaren kultura zabaltzea. Hau bigarren urtea izan da BPSO bikaintasunarekin konprometitutako zentro izateko hautagai gisa. Gaur egun, kategoria guztietako 93 profesional ari dira proiektu hau bultzatzen, 3 gida ezarita:



- Sarbide baskularra. Ospitale osoa.
- Pertsona eta familia ardatz duten zainketak. Garuneko Kaltearen unitateak.
- Zainketa aringarriak bizitzako azken 12 hilabeteetan. Zainketa Aringarrien Unitatea.

Urte honetan, harremanak eta kontzeptuak sendotu dituzte, eta hainbat strategiari ekiteko antolatu diren ekintzak hedatzen jarraitu dute. Proiektuaren barne-zabalkundea egiten dute, komunikazio formal eta informalen bidez eta esperientziak partekatzeko 2 barne-jardunaldiren bidez. Era berean, kanpoan esperientziak zabaltzen jarraitzen dute, 7 kongresu/jardunalditan parte hartuz, eta Deustuko Unibertsitatean kanpo-proiektua zabaltzen hasten dira 140 ikasleri emandako mintegi batekin.



## Lan-osasuna

**Eskaini diren mediku-azterketak (MA)**

2023an Gorlizko Ospitaleko 107 langileri osasun-azterketa eskaini zaie; horietatik % 22 gizonezkoei egin zaizkie eta % 78 emakumezkoei.

Azterketa motaren arabera, honela banatzen dira:

MA mota	Guztira
Haurdunaldia	5
Lanbide-gaixotasuna	-
Hasierakoa	38
65 urtetik gorakoak	4
EPE	38
Aldizkakoa	21
Planifikatua	-
Aldi baterako ezintasunaren ondoren lanera itzultzea	-
Zuzendaritzak eskatua	1
<b>Guztira</b>	<b>107</b>

**Txertaketak**

2023an 51 txerto-dosi eman zaizkie Gorlizko Ospitaleko langileei; horietatik % 33 gizonezkoei eman zaizkie eta % 67 emakumezkoei. Txerto motaren arabera, honela banatu dira:

Txertoa	Guztira
A Hepatitisa	14
A+B Hepatitisa	9
B Hepatitisa	28
<b>Guztira</b>	<b>51</b>

Horrez gain, 2023ko gripearen txertaketa-kanpainaren barruan, 70 profesional eta kanpoko 4 pertsona txertatu ditugu.

**Istripuak**

Istripuen atalean hauek dira 2023ari dagokion kopuruak:

Baja izan dira		Ez dira baja izan		Guztira
Ospitalekoak	25	Ospitalekoak	49	76
In itinere	5	In itinere	5	10
<b>Guztira</b>	<b>32</b>	<b>Guztira</b>	<b>54</b>	<b>86</b>

Istripu horietatik 14 gizonezkoenak izan dira eta 72 emakumezkoenak



## Euskara

Osakidetzako planean oinarrituta, Gorlizko Ospitaleak ekainaren 14an Euskararen Erabilera Normalizatze III. Plana (2022-2028) onartu zuen zuzendari-gerentearen 90/2022 Ebazpenaren bidez.

**Derrigortasun-datak eta hizkuntza-eskakizunak**

2023an 10 data ezarri ziren guztira, eta baten aldaketa eskatu zen. Hain zuzen, lanpostu bat bitarteko langileekin betetzeko izapidetzean sortutako arazoengatik. Bosten kasuan, erretiroagatik sortutako huts begetatiboak izan ziren. Beste bostak kode berriei dagozkie eta gutxieneko indizea betetzeko jarri zitzairen. Hurrengo koadroetan bilakaera ikus daiteke:

Derrigortasun-datak	2021	2022	2023	Hizkuntza-eskakizunak	2021	2022	2023
DD ezarrita	129	143	154	HE bat egiaztatuta	185	158	193
DD iraungita	116	126	151	Dagokiona edo altuagoa	152	121	151
DD + HE egiaztatuta	86	76	104	Salbuetsiak	15	10	6

**Euskalduntzeko eta alfabetatzeko ikastaroak**

2023-2024 ikastaroan zortzi langilek eskatu zuten lanorduetako ikastaroa. Deialdi bakoitzean langile bati eman zaio baimena, beraz, ikasturte honetan bi langile egon dira liberatuta.

Lanorduz kanpoko ikastaroei dagokienez, 2023-2024 ikasturtean euskara ikasteko 23 eskaera egon ziren, horietako sei autoikaskuntzarako.

Bestalde, 3 eskaera ukatu ziren ordu-kreditua agortuta edukitzegatik edo gutxieneko kontratazio-tartea ez betetzeagatik.

	2021-2022	2022-2023	2023-2024
Lanorduz kanpo	19	11	17
Autoikaskuntza	5	4	6

**Prestakuntza euskaraz**

Gorlizko Ospitaleko 74 profesionalak izena eman zuten Osakidetzako Erakunde Zentralak Jakinsarearen bidez euskaraz eskainitako etengabeko prestakuntzako 42 ikastarotan; horietako 29k ikastaro bat baino gehiago egin zuten. Sei aurrez aurreko ikastaroak izan ziren, 3 mistoak eta gainerakoak online.

Bestalde, 38 langilek izena eman dute Gorlizko Ospitaleak lan-arriskuen prebentzioari buruz antolatutako ikastaroan. Memoria hau idatzi den datan bukatu gabe dago.

**2023ko helburuen betetze-maila**

2023an lan hauek egin ziren:

- Euskara atala moldatu egin dugu Gorlizko Ospitaleko intranetean: informazioa behar bezala antolatzeko.
- Langile berrien harrera-dokumentua aldatzeko proposamena egin zen Euskara Batzordean, euskarari buruzko informazio egokiagoa emateko. Dokumentua bi zatitan banatu da. Batean langile guztiei zuzendutako informazio orokorra jasotzen da, eta bestean unitate motaren arabera bereizita.
- Gorlizko Ospitaleak eskaintzen duen prestakuntza euskaraz ere izan dadin pausuak eman dira. 2023an bi ikastaro itzuli ziren euskarara, biak online egiteko.
- Euskara Planaren 4.7. puntuan hizkuntza-ohiturak aldatzeko egitasmo planifikatuak abiarazi behar direla jasotzen da (Eusle dinamika). Gorlizko Ospitalean Ekonomiako eta Finantzako zuzendariari bere atalean egitea proposatu zitzaion. Lehenengo bileraren ondoren 10 pertsonak onartu zuten parte-hartzea. Esperientzia bukatuta, ikusi da bi hizkuntzetan berdín edo euskaraz bakarrik komunikatzeko joerak gora egin duela eta eutsi diotela neurri handi batean ohiturari.
- HE egiaztatuta eduki ez baina euskaldunak diren langileak ditugu erakundearen. Langile horiek arreta euskaraz emateko gai dira, eta euskaraz egiten diren ekimen eta proiektuetan parte hartzeko ere. Horregatik, langile horiek kokatzeko inkesta labur bat egingo da. Inkestaren ziriBORROA eginda dago eta Euskara Batzordean aurkeztuko da, kideen iritzia jasotzeko.

**Euskara sustatzeko ekimenak**

- Euskararen Eguna: azken urteotan Euskararen Eguna ospatzeko egindako proposamenetatik (argazkia, testua, audioa, bertsoa, ...) gehien gustatu zitzaiena hartu eta bertso berria egiteko eskatu zitzaien, baina ez zen proposamenik jaso.



## Informatika

Jarraian, ospitaleko informatika sailak 2023an egindako jarduera nagusiak aurkeztuko ditugu.

### Profesionalentzako laguntza

Informatikako zerbitzuari arreta emateko profesionalen eskaeren kopurua egonkor mantendu da aurreko ekitaldiekin alderatuta. 2023ko ekitaldian, erabiltzailearen 4.000 dei ingururi erantzun diegu (eguneko 20), hainbat jarduera-eremuri buruzkoak: komunikazioak, bideokonferentziak, ofimatika, sistemak eguneratzea eta parametrizatzea, informazioa ustiatzea, erabiltzaileen mantentzea, baliabideak eskuratzeko baimenak, etab.

### Azpiegiturak. Mikroinformatika

Mikroinformatikako ekipamenduaren zerrenda (elektromedikuntza kenduta)

-Ordenagailuak	174
-Inprimagailuak	132
-Tabletak	50

### Azpiegiturak. LAN

2023an, ospitalearen datu-hartuneen kopurua % 6 inguru handitu dugu, egungo 297 hartuneetara iritsi arte (wifi sarea izan ezik).

Era berean, 2023an amaitutzat eman dugu zentro osoan wifi azpiegitura berritzeko eta handitzeko proiektua. 70 a.p. (sarbide-puntuak/antenak) izatetik, 110 puntura igaro gara, eta horrela wifi estaldura geografikoa ospitale osora zabaldu da eta indartu da.

### Softwarea eta garapenak

Hauetara 2023an landu ditugun aplikazio eta funtzionalitate nagusietako batzuk:

- ADI. ADI aplikazioaren bilakaerarekin jarraituko dugu. Aplikazio hori ospitale-eremuko errehabilitazio-terapien jarraipena eta kontrola egiteko ezarri genuen 2022an. Medikuek, erizainek, fisioterapeutek, laguntzaileek eta zeladoreek esku hartzen dute.
- Dietools delakoak. Tableta eta/edo gailu mugikor bidez, pazienteentzako dieta ohean bertan hautatzeko.
- Ospitaleko intranetaren mantentze-lanak.
- Lankidetzako eta barneko laneko esparruak birdefinitzea. "Workarea" berriak definitzea eta informazioa trukatzeko espazioak berregituratzea (barne-komunikazioa).

Era berean, informatikatik datu pertsonalen segurtasunari buruzko guztiari estaldura eta euskarria ematen diogu, eta ospitaleko hainbat batzorde eta lantalderekin lankidetzan jarraitzen dugu.

- Segurtasun Batzordea
- Komunikazio Batzordea (lantaldea)
- Euskara Batzordea



## 6. Gure eragina ingurunean

### Gizartea

Euskadiko osasun publikoko Gobernamendu Onaren Kodeak gako bezala Gizarte-erantzukizun Korporatiboa bultzatzen du, erakunde sanitarioek gizarte-inguruari eta ingurumenari egiten dieten ekarpena hobetzeko.

Gorlizko Ospitaleak gizartearekin duen konpromisoa argi uzten du jasangarritasunaren, gardentasunaren eta gobernantzaaren inguruan garatzen dituen ekintzen bidez. Hala, helburu eta ekintza neurgarriak planteatzen ditu eta elkartasun, ekitate, unibertsaltasun, eraginkortasun, kalitate eta lan seguruari buruzko printzipioak sartzen ditu.

### Ziurtagiriak

#### ISO 14001 Araua OHSAS 18001ekin

Gorlizko Ospitaleak 14001 ISO arauaren (Ingurumen-kudeaketako Sistema) ziurtagiria du 2010etik, eta 18001 OHSAS (Laneko Segurtasuna eta Osasuna Kudeatzeko Sistema) ziurtagiria 2015etik. Horrez gain, Energia Ziurtagiria ere Eusko Jaurlaritzak ematen duen kalifikazio altuenarekin lortu du: A eraginkortasun maila.

### Aliantzak eta interes-taldeak

Erakunde edo/eta talde hauekin aritzen gara lankidetzan estuan:

- Biocruces
- Osakidetza Bizkaia ingurumen taldea.
- Osasun Saila
- Osakidetza
- Bizkaiko Foru Aldundia eta zahar-egoitzak.
- Eremu pribatuko Bizkaiko ospitaleak
- Aseguru-etxeak.
- Gure ospitalearen menpeko zentroak dituzten udalak.
- EHU/UPV
- Deustuko Unibertsitatea
- Euskalit

## Programak eta proiektuak

2023an, proiektu garrantzitsu hauek azpimarra ditzakegu:

- Azpiegitura, instalazio eta ekipoen plana eguneratzea. Plan horren ondorioz, ospitaleko azpiegiturak, instalazioak eta ekipoa konpontzeko eta eguneratzeko jarduera ugari egin dira.
- Espedienteak digitalizatzeko eta suntsitzeko proiektuarekin jarraitzen dugu, baita suntsipen konfidentzialeko papera minimizatzeko eta biltzeko proiektuarekin ere.
- Ospitaleko hainbat eremu girotzeko proiektua.
- Ospitaleko argiztapenaren eta energia-eraginkortasunaren mapa egitea. 2023an, panel zaharren orde LED panelak jarri dira, eta presentzia-sentsoreak instalatu dira ospitaleko hainbat gunetan.
- Ospitaleko ingurutzailen teknika hobetzeko plana egitea.
- Aktiboak kudeatzeko proiektua, Zuzendaritza Nagusiak bultzatutakoa, inplementatzea. Lehenengo fasea amaitu da, ospitaleko instalazio eta ekipamendu guztien inbentarioa eginda.
- Pazientearen segurtasuna, erorikoak minimizatzea: euspen-zingilak hobetzea, gurpil-aulkien iraulien aurkako sistemak eta egoera txarrean dauden zoruak konpontzea.
- Gurpil-aulkien parkea aztertzea eta berritzea. Azken bi urteetan ospitaleko gurpil-aulkien zati handi bat ordezkatu da. 2024an parkea erabat berritzen amaituko da.
- Ospitaleko informatika-zerbitzuarekin lankidetzan aritzea, langileentzako menu-eskaerak kudeatzeko web-programa bat egiteko.

## Hobekuntzak ekipamendu, instalazio eta prozesuetan

### EKIPAMENDUAN

2023an, ekipamendua hobetzeko inbertsio handiak egin dira, batez ere ekipamendu asistentzialari dagokionez. Kasu guztietan erosketak berdearen prozedura bermatu da, eta eraginkortasun energetiko hobeko ekipoa erosi dira, zerbitzu jasangarriagoa lortzeko.

#### Asistentziala

- Ospitalizazio-ohak, alboratzeko aukerarekin eta bariatrikoak.
- Eskaren aurkako koltxoak.
- Haurren errehabilitaziorako hainbat ekipamendu.
- Entrenamendu terapeutikoko ekipoa goiko eta beheko gorputz-adarretarako
- Bipedestadoreak.
- Nasofaringolaringoskopia.
- Pedalei eragiteko plataformak, Dualebike pantailarekin.
- XX gurpil-aulkiak.
- Ikusmena kontrolatzeko aparatua.
- Garabi mugikorra.
- Kontrolatutako medikazio-hozkailuak.

#### Farmazia

- Medikamentuen ontziratzaile erdiautomatiko balioaniztuna.

#### Arropa zuria

- Uniforme ez-kirurgikoak banatzeko sistema automatizatua.

## INSTALAZIOETAN

Gorlizko Ospitaleko instalazioak berritzea eta hobetzea funtsezkoa da erabiltzaileei zein profesionali zerbitzu egokia emateko. Urte honetan, 2023ko azpiegituren planean jasotako hobekuntza asko egin dira. Nagusienak hauek izan dira:

- 1. Ezkerreko eta 2. Ezkerreko unitateetan ur hotzeko nahiz beroko hodiak berritzea.
- 1. Ezkerrean pixontziak jartzeko euskariak instalatzea eta ospitaleko gainerako unitateetakoak konpontzea.
- Goi-tentsioko transformadorea ordezte.
- Aireztapen-ekipoa jartzea aldagela orokorrean (sukaldeko eraikina).
- Potentzia txikiagoko biomasa galdara instalatzea.
- Aparkaleku nagusia berriz asfaltatzea.
- Aparkaleku nagusiko parterreak ordezte eta eraberritzea.
- Ospitaleko pasabide guztiak konpontzea.
- Ekitaldi-aretoan biltegi berri bat egokitzea.
- Igerilekuko eraikinean haurren errehabilitazioko gela egokitzea.
- Ospitaleko hainbat eremutan leihoak berritzea: kanpo-kontsultak, arropa zuria, dorreak, etab.
- Klimatizazio-ekipoak instalatzea hainbat eremutan: Kanpo-kontsultak, haurren errehabilitazioko gela, kafetegia, Harrera eta informazioa, zuzendaritza, administrazioa, etab.
- 2. Ezkerreko unitatea eraberritzea: pintura, kontrola eraberritzea eta instalazioak.
- Igerilekuko teilatua birgaitzea, ura sartzeko eta hezetasuna ekiditeko.
- Igerilekuko eraikinean bizi-lerroak instalatzea.
- Kafetegiaren estalkia birgaitzea eta kanpoaldean pergola jartzea, terraza-eremua handitzeko.
- Sukaldeko eraikinaren kanpoaldea birgaitzea: estalkiaren teilatu-hegaletan teilak berriz jartzea, askak kendu eta horien ordeztarretarak jartzea, kanpoaldea egokitzea (edukiontzia) eta fatxada margotu eta konpontzea.
- Ospitaleratzeen sarrera-eremua birgaitzea.
- X izpien gelako bulegoa eta pazienteen aldagelak egokitzea.
- Administrazio langileen eremua eraberritzea.
- Hezetasunak kentzea ospitaleko beheko solairuan: sarrera nagusia, hondartzako sarrera, harrera, X izpien itxarongela.

## PROZESUETAN

Prozesuen araberako kudeaketaren atalean, gainera, prozesuetako batzuk berrikusi eta egokitu dira, horiek hobetzeko:

- Ingurumen-taldea berriro aktibatzea.
- Esterilizazioko, analitika eta probetako eta hemokultiboaren erazketako prozedurak eguneratzea.
- Itsasgari sanitarioak erabiltzearen ondoriozko lesioen inguruko prozedura eguneratzea.
- Bide periferiko laburra egoki erabiltzeko prozedura eguneratzea.
- Garbiketarak antolatze prozedura eguneratzea.
- Heliportuan jarduteko prozedura berria.
- Bizi-larrialdiko prozedura eguneratzea.

## 7. Gure eragina berrikuntza arloan

### Berrikuntza-plana eta I+G+b batzordea

Gorlizko Ospitalean, berrikuntza sustatzea gure Plan Estrategikoaren helburuetako bat da.

Ikerketaren, garapenaren eta berrikuntzaren bidez jasangarritasunaren bidean hobeto kokatzen gara, aldaketeki egokitzea erraztuz.

Zerbitzuak, prozedurak eta proiektuak eraldatzeko modu horrek balioa eranstean du, pazienteei osasun-arreta personalizatua emanez, horixe baita gure lanaren helburu nagusia. Lan hori norbanakoaren eta komunitatearen osasun-emaitzak hobetzera bideratuta ere badago.

Bide eraldatzaile eta dinamiko hori pertsonen gaitasunetan, esperientzian eta pazienteen beharretan oinarritzen dugu, baita enpresen aurrerapen teknologikoetan eta proposamenetan ere.



#### IDiGOR Batzordea

I+G+b Batzordea (IDiGOR) Gorlizko Ospitalean berrikuntza kudeatzeko egiturazko organoa da, ideia berriak sortzea bultzatuz, ideia horiek balioesteko moduko I+G+b proiektu bihurtuz, **profesionalen** ezagutza babestuz eta ustiatuz, zaintza-jarduerak ezarri eta transferentzia teknologikoa eta erakundeari egiten zaiona kudeatuz.

Batzordearen xedea hau da: balioa ematea produktuen, zerbitzuen, prozesuen edo antolaketa-metodoen aldetik. Horretarako ideien ekarpenak sustatzen dira, arlo guztietan eta profesional guztien parte-hartzearekin, ezagutza, esperientzia eta buruargitasuna eranstean baitute.

#### Batzordearen eginkizunak hauek dira:

- Gorlizko Ospitaleko berrikuntza-ildoak baliozkotu.
- Berrikuntza-zorroan sartzen diren ideiak baloratu eta ideia horiek garatzen lagundu, sistemara transferitu arte.
- Profesionalen artean berrikuntza-kultura sortzea bultzatu eta sustatu.
- Berrikuntzaren urteko kudeaketa-plan bat egin eta onartu. Plana bat etorriko da, batetik, IIS BC Bren Berrikuntza Planarekin eta, bestetik, Gorlizko Ospitaleko Plan Estrategikoarekin eta Kudeaketa Planarekin.
- Berrikuntza eta horrek erakundearen eragina ebaluatu.
- IIS BC Bren Berrikuntza Batzordeari aurkeztu beharreko lan-ildoak (estrategikoak) identifikatu.

## Programak eta proiektuak

2023an 30 proiektutan lan egin da, eta horien artean berrikuntza teknologikoak, garapen teknologiko berriak eta antolakuntza- eta prozesu-proiektuak ditugu:

- **Ospitale-Art.** Ikus-entzunezko esperientzia artistikoetan murgiltzearen eraginkortasuna erakustea, sintomatologia displazenteroa arintzeko eta ospitaleratutako pazienteen gogo-egoera hobetzeko tresna gisa.
- **Hal.** HAL® -ren eraginkortasuna eta segurtasuna aztertzea, iktus bat izan ondoren ibilera-patroia hondatuta duten pazienteen parametro funtzionalak hobetzen direla frogatzeko, saiakuntza kliniko baten zorrotasunarekin.
- **Mahidola.** Minaren irudikapen holistikorako tresna bat diseinatzea, garatzea eta baliozkotzea, minari ikuspegi fisiko, emozional, sozial eta espiritualetik heldu ahal izateko.
- **Beso-euskarri terapeutikoa.** Gurpil-aulkiarentzako beso-euskarria garatzea, egokitzea eta balidatzea, nahasmendu neuromotorrak dituzten pazienteen jarrera berrezteko tresna gisa.
- **Oreka.** Orekaren defizitak ebaluatzeko eta entrenatzeko plataforma mugikor sensorizatu bat garatzea, oreka dinamikoaren eta estatikoaren ebaluazio objektiboa egiteko eta paziente bakoitzaren oreka-defiziten berriazko entrenamendua egiteko.
- **BPSO: Arreta pertsonalizaturako arbela.** Profesionalen ekimenez sortutako tresna, errehabilitazio-plana eta ospitaleratutako pazientearen premietan (terapiak, zainketak, gailuak, dietak, etab.) oinarritutako zainketak bistaratzeko, profesionalen eta paziente-familiaren artean informazioaren transmisioa erraztuz.
- **Mikrobiota versus Ictus.** Hesteetako mikrobiotaren osagaia den trimetilamina N-oxido (TMAO) metabolitoak hainbat gaixotasunen garapenean zer erlazio duen aztertzea (Ictus).
- **EvolvRehab Hand.** Errealitate birtualeko entrenamenduaren eraginkortasuna erakustea, EvolvRehab Hand plataforma erabiliz, iktus bat izan ondoren esku paretkoaren defizita eta funtzionaltasuna hobetzeko.
- **GAren bonbona-euskarria berriz diseinatzea.** Bonbona-euskarria jartzea erraztuko duen irtenbide bat diseinatzea, ospitaleko edozein gurpil-aulkiri modu praktiko eta azkarrean egokitu ahal izateko, tresnarik erabili beharrik gabe. Bonbona-euskarri horrek aukera eman behar du iraulien aurkako gurpilak aldi berean jartzeko.
- **Protesi sensorizatu paziente anputatuan.** Anputatutako pazientearen ibilera aztertzea, mugimendua eta indarra neurtzeko gaitasuna duen sensore bat protesian integratuta.
- **Intendolor.** Minaren neurozientzietan hezteko errehabilitazio-programa eta ariketa fisikoa, neurogenesia eta garuneko plastikotasuna sustatzeko.
- **Paziente hauskorrek duen pisuaren estimazioa I Aren bidez.** Tresna bat garatzea, paziente heldu hauskorren pisuaren estimazio fidagarria egiteko, aldagai irisgarrietan oinarrituta.
- **ADI pazienteen eguneroko agenda indibidualizatu.** Terapiak agintzeko eta planifikatzeko zirkuituan hobekuntzak ezartzea, profesional guztiei terapien eta helburuen inguruko komunikazio eta informazio eguneratua emanez, eta familiarri pazientearen ordutegi terapeutiko guztiekin agenda eguneratua eskainiz. Era berean, agindutako terapien kudeaketa eta datu estatistikoaren erazketa hobetu dira, horiek aztertzeko eta hobetzeko.



- **EvolvRehab Body.** EvolvRehab Body errealitate birtualeko plataforma erabiltzea iktusa duten pazienteen errehabilitazioan, ibilera goiz berreskuratzeko terapia osagarri gisa.
- **GAren oin-euskarria birdiseinatzea.** Oin-euskari osagarri bat diseinatzea eta garatzea, segurtasun-funtzioak gehitzeaz gain, pazientearen beharretara egokitu ahal izango dena.
- **Balantzea.** BALANCE plataforma mugikor sentzorizatuaren segurtasuna, erabilgarritasuna eta eraginkortasuna zehaztea, hartutako garuneko kaltea duten pazienteen oreka- eta ibilera-defizitak ebaluatzeko eta trebatzeko.
- **PsysioSet App.** PHYSIOSET APPren eraginkortasun terapeutikoa frogatzea errehabilitazio-tratamendu konbentzionalarekin alderatuta (taldekoa eta banakakoa), sorbaldako lesioa duten pazienteen kasuan mugikortasuna berreskuratzeko (artikulazio-balantzeari, funtzionaltasunari eta minari dagokienez) behar den denbora murriztuz.
- **GAren balazta berriz diseinatzea.** Gurpil-aulkietara doitu daitekeen gailua, balaztatze-funtzioa hobetzen duena, pazientearentzako segurtasuna gehituz aulkiaren erabileran.
- **EvolvRehab PNP.** EvolvRehab errealitate birtualeko plataforma erabiltzea pazienteen errehabilitazioa egiteko Kritikoan Unitatean luzaro ospitaleratuta egon ondoren, ibilera goiz eskuratzeko terapia osagarri gisa.
- **BPSO: Profesionalentzako briefinga.** Saio laburren bidez, ekintzaren ondoren informazioa partekatzen da, bai eta iraganeko egoera bati buruzko ikuspuntua ere, alderdi positiboak eta disfuntzioak nabarmentzeko. Profesionalek beren ezagutzak eta esperientziak partekatzen dituzte eta haiengandik ikasten dute.
- **Lesion Map.** Garunean heterogeneoki banatutako lesioak, sintoma edo funtzionaltasun berdinak sortzen dituztenak, garun-sare beraren parte dira. Errehabilitazioari ematen zaion erantzuna iragartzea, kaltetutako garun-sarearen arabera, OTA bidezko konektomiaren bidez.
- **Apositu adimendunak.** Apositu sentzorizatuak, pazienteen zauriak 3 parametroren bidez sendatzeko (pH-a, azido urikoa eta piozianina) eta tenperatura kontrolatzeko. Hidrogela modu kontrolatuan askatzea ahalbidetuko du zauriaren egoeraren arabera.
- **Espastizitaterako sentsores birtuala.** Sentsores birtual bat sortzea, goiko gorputz-adarrean ohikoenak diren patroiek espastikoak detektatzeko gai dena, app baten bidez.
- **Hand-Tutoreak.** Iktus osteko pazienteen kasuan, HandTutor™ gailuaren eraginkortasuna baloratzea eskuaren errehabilitazio intentsiboan, tratamenduarekiko atxikidurari eta eskuaren funtzionaltasunari dagokienez.
- **EvolvRehab Fall Prevention.** EvolvRehab Fall Prevention-en bidez trebetasun fisikoak eta kognitiboak hobetzea, paziente hauskorrengan erorikoak izateko arriskua murriztuz.
- **GAren bizkarralde etzangarria.** Sistema horrek mugitzeko zailtasunak dituzten paziente batzuei die gurpil-aulkia posizio erosoan erabiltzeko aukera ematen, bai eta altxatzeko ere, gurpil-aulkia uzteko.
- **Burmuineko oximetria iktusa duten pazienten kasuan.** NIRSen (gertuko infragorriaren espektroskopia) bidez, garuneko oxigenoaren (rSO<sub>2</sub>) saturazio erregionalean gertatutako aldaketak objektibatzea iktusa fase azpiakutuan duten pazienteengan, eta errehabilitazioaren ondoren zer aldaketa izan dituzten jakitea.
- **Ohe-ahulki Transferra birdiseinatzea.** Pazienteak ohearen eta gurpil-aulkien artean mugitzeko prozesua errazten duen gailua, segurtasuna eta erosotasuna ematen duena.
- **Anputatutako gorputz-adarretarako euskarria GAn.** Gurpil-aulki estandarretara egokitzen den osagarria, anputatutako zangoa ahalik eta ondoen jartzeko aukera ematen duena bertan

emango den denboragatik edo beste arrazoi batzuegatik gomendagarria denean, muinoiaren defomaziorik edo bestelako kalterik gerta ez dadin.

- o **Varstiff GAKo birjartzailea.** Gorpil-aulkian jarrerari eusteko gailu bat garatzea, eserita egotean jarrera egokia ziurtatuko duen material adimendun bat erabiliz.

## 8. Emaitzak

### Emaitza estrategikoak

Jarraian, 2023ko ekitaldiko jarduera ekonomikoari buruzko koadro nagusiak aurkeztuko ditugu:

Diru-sarreraren eta gastuen balantzea.

Inbertsioak.

Ekitaldiko batez besteko kostuen eta kostu metatuen azterketa.

#### Diru-sarreraren eta gastuen balantzea

2023 URTEKO DIRU-SARREREN ETA GASTUEN BALANTZEA			
GASTUAK	2023	DIRU-SARRERAK	2023
Produktu farmazeutikoak	480.713	Sarrerak zerbitzuak emateagatik. Prog.-kontr.	27.144.121
Material sanitarioa	552.555	Hirugarrenen sarrerak	309.308
Beste hornikuntza batzuk	494.221	Negozio-zifraren zenbateko garbia	27.453.429
Kanpoko enpresen zerbitzuak	1.366.019		
Kanpoko zerbitzuak eta bestelako gastuak	1.698.812		
Hornidura	11.881		
<b>Funtzionamendu-gastuak guztira</b>	<b>4.604.200</b>		
Lansariak eta soldatak	17.064.711	Beste ustiapen-sarrera batzuk	26.496
Gizarte-kargak	99		
Kalte-ordainak	2.632		
Gizarte Segurantza	5.447.086		
Itzari	361.196		
<b>Pertsonal-gastuak guztira</b>	<b>22.875.724</b>		
<b>Ustiapen-gastuak guztira</b>	<b>27.479.925</b>	<b>Ustiapen-sarrerak guztira</b>	<b>27.479.925</b>
<b>Finantza-gastuak guztira</b>	<b>0</b>	<b>Finantza-sarrerak guztira</b>	<b>0</b>
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>27.479.925</b>	<b>DIRU-SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>27.479.925</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>			<b>0</b>

## Inbertsioak

2023ko INBERTSIOAK		€
		<b>636.368</b>
<b>Estrategikoak</b>		<b>0</b>
<b>Propioak</b>		<b>636.368</b>
Instalazioak		165.584
	Ur hotz eta beroko hodia 1. Ezk. unitatean ordeztzea.	24.049
	Ur hotz eta beroko hodia 2. Ezk. unitatean ordeztzea.	31.019
	Goi-tentsioko transformadorea ordeztzea.	47.324
	Aldagela orokorrean aireztapen-ekipoa instalatzea (sukaldeko eraik)	41.980
	Informazio- eta onarpen-eremuen klimatizazioa	21.212
Lanak		223.887
	Eraikin nagusiko zurezko leihoak eta beirateria berriztatzea.	58.616
	Ospitaleko kanpoko pasabideak berriztatzea.	78.689
	Pasabidea jartzea anbulantzia-eremuan.	24.373
	Ekitaldi-aretoaren biltegia egokitzea.	13.896
	Sukaldeko eraikinaren pintura.	48.314
Ekipamenduak		246.897
	Gurpil-aulkien parkearen zati bat berritzea.	9.200
	Entrenamendu terapeutikoko ekipoa beheko eta goiko gorputz-adarretarako.	8.415
	Ospitalizazio-oheak.	74.899
	Medikamentuen ontziratzaille erdiautomatiko balioaniztuna.	28.435
	Ortopediarako tresna: Gazela Bipedestadorea.	5.490
	MACHIDA nasofaringolaringoskopia.	14.762
	Uniforme ez-kirurgikoak banatzeko sistema automatizatua.	72.479
	Pedalei eragiteko 2 plataforma, Dualebike pantailarekin.	15.406
	Eskaren aurkako koltxoak ospitalizazio-oheetarako.	17.811

Ekitaldiko batez besteko kostuen eta kostu metatuen azterketa.

2023ko KOSTUEN AZTERKETA			
OSPITALIZAZIOA		KANPO-KONTSULTAK	
<b>Zerbitzu/sekzio bakoitzeko kostua</b>	<b>24.712.239</b>	<b>Ospitalea</b>	<b>807.297</b>
Barne-medikuntza	6.028.597	Lehen kontsultaren kostua	444
BM Susperraldia	2.281.710	Ondorengo kontsulten kostua	222
BM Aringarriak	3.746.888		
<b>Errehabilitazioa</b>	<b>18.683.642</b>		
Garuneko Kaltearen errehabilitazioa	13.242.541	<b>ARLO TERAPEUTIKOA</b>	
Traumatologiako errehabilitazioa	1.885.455	<b>Ospitalea</b>	<b>1.867.832</b>
Errehabilitazio orokorra	3.555.645	Kostua pazienteko (erreg. ambulatorioa)	2.085
<b>Kostua altako</b>	<b>16.099</b>		
Barne-medikuntza	8.373	<b>URIBE ESleri LAGUNTZEA</b>	
BM Susperraldia	5.209	<b>Eremuko Rx</b>	<b>61.041</b>
BM Aringarriak	13.287		
<b>Errehabilitazioa</b>	<b>22.925</b>		
Garuneko Kaltearen errehabilitazioa	27.531	<b>EUSKARA IKASTEKO ORDEZKAPENA</b>	
Traumatologiako errehabilitazioa	10.192	<b>Euskara ikasteko ordezkapena</b>	<b>16.902</b>
Errehabilitazio orokorra	23.863		
<b>Kostua egonaldiko</b>	<b>601</b>	<b>KOSTU EZ-EGOZGARRIAK</b>	
Barne-medikuntza	571		
BM Susperraldia	339		
BM Aringarriak	981		
<b>Errehabilitazioa</b>	<b>611</b>		
Garuneko Kaltearen errehabilitazioa	625		
Traumatologiako errehabilitazioa	520		
Errehabilitazio orokorra	615		
<b>GUZTIRA</b>			<b>27.479.933</b>

## Emaitzak bezeroen arloan


Bizkaiko gure pazienteei eguneko 24 orduetan eta urteko egun guztietan arreta emango zaiela bermatzen dugu, gure asistentzia-dispositiboen bidez.

### Ospitalizazioa

2023

Guztizkoa	Ospitaleratzeak	Egonaldiak	Batez b. egonaldia	Okupazio indizea	Altak	Exitusa
	1.511	41.145	27,2	87,1	1.535	315
Errehabilitazioa	802	30.593	38,1	103,7	815	27
Orokorra	152	5.779	38,0	118,2	149	1
Garuneko Kaltea	467	21.190	45,4	143,9	481	24
Traumatologia	183	3.624	19,8	36,7	185	2
Barne-medikuntza	709	10.552	14,9	59,4	720	288
Susperraldia	428	6.733	15,7	68,6	438	121
Z. Aringarriak	281	3.819	13,6	48,0	282	167

#### Altak arloaren arabera



### Errehabilitazioko Kanpo-kontsultak

Guztizkoa	Lehenago kontsultak	Ondorengo kontsultak	Kontsultak guztira
	631	2.375	3.006
Ospitalean	631	2.375	3.006

### Errehabilitazioko Kanpo-kontsultak



### Errehabilitazioko Terapien Unitatea


Guztizkoa	Prestaz.	Asistentziak	Pazienteak	Asistentzia / paziente batezbeste
	173.848	51.204	1.818	28
Ospitalean	173.848	51.204	1.818	28

### Erradiologia

2023

Guztizkoa	Ohiko erradiologia
	2.948
Ospitalizazioa	601
KK Ospitalekoak	139
KK Ingurukoak	2.208


### Ohiko erradiologia





Hauak dira pazientearen segurtasunaren arloko adierazle nagusien bidez neurtutako emaitzak:

Pazienteen segurtasunari buruzko adierazleak	2019	2020	2021	2022	2023
Erorikoak 100 egonaldiko	3	5	4	6	<b>4</b>
PUak dituzten pazienteak 1000 egonaldiko	5,3	6,3	7,5	6,9	<b>4,9</b>
Infekzio-tasa orokorra 100 ingresuko	11	10	17	16	<b>19</b>
<b>Medikazio-gertakariak</b>	21	34	28	33	<b>90</b>
PSJIS aplikazioan erregistratutako sarreraren kopurua Pazientearen Segurtasunari buruzko gaiak Jakinarazteko eta Ikasteko Sistema (PSJIS)	137	114	95	154	<b>134</b>

PUak dituzten pazienteak 1000 egonaldiko





Infekzio-tasa orokorra 100 ingresuko



## Emaitzak gizartearen eta ingurumenaren arloan

Ondoren, 2023 urtean zentroak izan dituen kontsumoen eta hondakinen kudeaketaren inguruko datu nagusiak aurkezten ditugu.

Ez da desbideratze nabarmenik egon aurreko ekitaldiekin alderatuta. Elektrizitatearen, gasaren eta uraren kontsumoa pixka bat handitu dugu, baina hondakin sanitarioen kopuruari dagokienez, nabarmen gutxitzea lortu dugu.





## 9. Kontaktua

---



Argibide gehiago behar izanez gero, zure esanetara gauzkazue.  
Gurekin harremanetan jartzeko bide hauek erabil daitezke:

E-posta: [hospital.gorliz@osakidetza.eus](mailto:hospital.gorliz@osakidetza.eus)  
Telefona: 0034 94 400 66 02  
Helbidea: Urezarantza Ibiltokia, 1. 48630 Gorliz – BIZKAIA  
Webgunea: <https://www.osakidetza.euskadi.eus/portada-hospital-gorliz/>